

## EMAKUME ZIENTZIALARIAK IKASGELAN

ZIENTZIAREKIKO INTERESA SUSTATZEN DU CASIO ESPAÑA-REN HEZKUNTZAKO ALORRAK. HORREGATIK, EMAKUME ZIENTZIALARI AIPAGARRIAK JARRI DITU IKUSGAI BERE CLASSWIZ KALKULAGAILUETAN.

Gero eta globalagoa eta anitzagoa den mundu batean bizi gara, eta **oraindik ez da berdintasuna lortu esparru gehienetan**. Alor zientifikoan eta teknologikoan, nabaria da genero-arrakala: UNESCOren arabera, mundu mailan, ikertzaileen % 29\* bakarrik dira emakumeak. Espainian, nabarmen hobea da datu hori, % 39ko presentzia dute emakumeek zientziaren sektorean, baina urruti dago oraindik tradizionalki gizonak nagusi izan diren sektore batean lortu nahi den berdintasun egoeratik.

Zientzia jakintzak funtsezko garrantzia hartzen ari dira gizartean (ikus Garapen Jasangarriko Helburuak, 2030 Agendan jasotzen direnak), eta **ezin dugu bazter utzi emakumeen ikuspegia**. Espainiako unibertsitate-sistemako ikasle guztien % 54,3 emakumeak diren arren, titulazio teknikoetan –Ingeniaritza eta Arkitektura kasu–, % 25,5ekoa besterik ez da emakumeen presentzia, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren datuen arabera\*\*.

Testuinguru horretan, CASIOk bere harri-koskorra ekarri nahi du, **Bigarren Hezkuntzako ikasleei emakumezkoen erreferentziak** emanez, haien etorkizunari eta, oro har, bizitzari buruz hausnartzeko une berezi batean baitaude.

Nork ez du noizbait CASIO kalkulagailu zientifiko bat izan? Zerbaitegatik deitzen diegu #betikokalkulagailuak... Kalkulagailu zientifikoa tresna pedagogiko ezin hobea da zientziak, teknologiak, ingeniaritzak eta matematikak ikasteko (STEM), eta oso hedatuta dago haien erabilera DBHko eta Batxilergoko ikasgeletan.



## OMENALDIA, HISTORIA ALDATU DUTEN 12 EMAKUME ZIENTZIALARIRI

12 ilustratzaileekin harremanetan jarri da CASIO, haien zientzialari gogokoena aukeratu eta haren erretratua egin dezaten. Ilustrazio hori serigrafiatuta joango da CASIO ClassWiz kalkulagailuen karkasetan. Haien ikuspegiarekin eta sormenarekin, STEAMari behin betikoz "Art"aren "A" gehituz, arte-proiektu honen imaginarioari ekarpena egin dioten **12 artista**: Ana Galvañ (Angela Ruiz Robles), Ana Juan (Hedy Lamarr), Cinta Arribas (Donna Strickland), Coco Escribano (Jess Wade), Conxita Herrero (Hipatia), Gema Ruperez (Maryam Mirzakhani), Julia Bereciartu (Ada Lovelace), Laura Liedo (Sophie Germain), Leire Bueno (Cecilia Payne-Gaposchkin), Nuria Riaza (Chien-Shiung Wu), Raquel Riba Rossy (Marie Curie), Rita Cortes (Katherine Johnson).



Ana Sostres Remacha Sophie Germain-ri buruzko lana irakasten du

## STEAMETAN EMAKUMEZKOEN ERREFERENTEAK EZAGUTZERA EMANEZ

Ekintza honekin, emakumeak zientziaren, teknologiaren eta matematikaren munduan duen ikusgarritasun eskasaren bidegabekeria historikoa iraultzen lagundu nahi du CASIOk. Emakume zientzialarienganako eta haien lorpenekiko (zoritarrez, ezezagunak) jakin-mina ere piztuko du ikasleen artean, zientziaren eta teknologiaren alorretan dauden **genero-estereotipoak apurtzen** ditu, eta ikasgeletan gai hauen inguruan hitz egitera bultzatzen du.

Gainera, hainbat erakunderekin kolaboratzen du CASIOk, **hauren artean bokazio zientifikoak eta teknikoak sustatzeko**: 11 de Febrero ekimena; Pompeu Fabra unibertsitatearen Wisibilizalaz programa; INSPIRA STEAM programa, mentoringean oinarritutakoa eta Deustuko fakultateak sustatutakoa, eta zientzia ilustratuen espezializatutako Madrilgo Principia editoriala, besteak beste.

Irailaren 1etik aurrera merkaturatuko dira **CASIO ClassWiz Women do Science** kalkulagailuak Espainian, #cientificasCASIO izenarekin.

[www.cientificascasio.com](http://www.cientificascasio.com) webgunean kontsulta daiteke proiektuari buruzko informazio guztia: zientzialarien eta artisten biografiak, ikasgelarako eduki baliagarriak, erreferente garaikideak, intereseko estekak...)  
Kontaktua: [eloybernal@casio.es](mailto:eloybernal@casio.es) | @CasioEdu

